

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sanchez de Muniáin kontseilariak amaiera eman dio Erdi Aroko Ikasketen Lizarrako Astearen 38. edizioari

*Bertaratutakoei eskerrak eman dizkie egun hauetan Nafarroako Historia aztertzekeo jarri duten ahalegin eta interesarengatik*

Viernes, 22 de julio de 2011

Kultura, Turismo eta Harreman Instituzionaletako kontseilariak, Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasiak, amaiera eman dio gaur goizean Erdi Aroko Ikasketen Lizarrako Astearen 38. edizioari. Aurtengo edizioa "1212-1214: Europa mamitu duen hirurtekoa" deitu da. Uztailaren 19tik 23ra, Erdi Aroko gaitan adituak direnek borrokaldi hori, aurretiko mugimenduak eta ondorioak aztertu dituzte.



Ganuzak, Sánchez de Muniáin kontseilaria eta Carrasco, ekitaldiaren amaieran.

Gaur eskaini da jardunaldietako azken hitzaldia, eta, goizeko 10:00etan, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea den Angel Gomez-Morenok eman du. Izenburua "Espainiako atzerapen kulturala: jarauntsitako ideiaaren patua" izan da. Ondoren, instituzioetako ordezkariak hitzaldiak eman dituzte; hain zuzen ere, Lizarrako alkateak, Begoña Ganuzak, Sanchez de Muniáin kontseilariak eta Batzorde Zientifikoko lehendakariordea den Juan Carrascok.

Kontseilariak eskerrak eman dizkie bertaratutakoei egun hauetan Nafarroako Erresumako Historia aztertzekeo jarritako ahalegin eta interesarengatik. "Nafarroako Historia –esan du- erkidego honek duen altxorrik handienetarikoa da. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak eta erakundeek ondare historikoa aztertu nahi dute, zehaztasun zientifiko eta akademiko handiena aplikatzen ahalegintzearekin batera. Ondare hori zaintzea, babestea eta indartzea da, ezberrik gabe, nire gain hartzen dudana erantzukizunik handienetarikoa, Kulturako sailburu izendatu berri bezala".

Sánchez de Muniáinek behin eta berriz azpimarratu du ezin dela ulertu Nafarroako erresuma pribatiboaren amaiera penintsula eta Europako testuinguruan, garai hartako nazioarteko harremanetan, erresumaren beraren arazo politiko eta sozialetan edo Nafarroako errege familiak une hartan zuen egoera zehatzean kokatu gabe; hori dela-eta, goraiatu egin du garai hartako Europako antzeko beste egoerekin alderatzeko astean

zehar egin den analisia.

Era berean, gehitu du ez dela aukerarik eman behar "Nafarroako Historia bezalako altxorra epe motzeko interes politikoek murrizteko, mozteko eta mugatzeko, ez baitute aurkitu eta zabaldu nahi egia zientifikoa edo akademikoa".

Amaitzeko, kontseilariak adierazi du Nafarroako gizarteari egindako lanaren berri emateko konpromisoa hartuko duela, eta 2012an Erdi Aroko jardunaldietan jorratuko diren gaiak iragarri ditu; hurrengo edizioaren izenburua "Mahomatik Carlomagno. Lehenengo garaiak (VII. Mendetik IX. Mendera)" izango da.

### **Historia apur bat**

Erdi Aroko Ikasketen asteak egiten 1964. urtean hasi ziren, eta Lizarrako Done Jakue Bidearen Lagunen Elkartek antolatu zituen. Berehala izan zuten Vianako Printzea erakundearen laguntza, eta 1966. urtean asteko gastuen eta antolakuntzaren zati bat bere gain hartu zuen. Lehen etapa horretan, "udako unibertsitate" antzeko bat egin nahi izan zen, eta garrantzi berezia izan zuten orduan elkarteko presidentea zen Francisco Beruete eta Zaragozako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedratiko Jose Maria Lacarrak. Garai hartan, kultur jarduera osagarriak ere egiten ziren, musika-jarduerak oro har, Ama Klaratarren komentuan.

1991. urtetik aurrera, hamar urtetik gorako etenaldiaren ondoren, berriro saioak egiten hasi ziren; hots, hemezortzigarren edizioa, eta bide berriarekin. Batzorde Zientifiko bat sortu zen, Asteko eduki akademikoez arduratzen zena; bien bitartean, antolakuntzaz kultur jarduera propioen barnean sartzen duen Kultura Zuzendaritza Nagusia arduratuko da. Orduz geroztik, etengabe egingo da, aktak argitaratzearekin batera.

Gainera, Lizarrako Udalak laguntza eskainiko du Erdi Aroko Asteetarako, eta, bertaratutakoentzat eta jendearentzat oro har, zenbait kultur jarduera antolatuko ditu.